

Arrasateko Bildu eta Aralarren adierazpena, losu Uribetxeberriaren egoera dela eta.

“losuri bere bizitzaren azken fasea duintasunez igarotzen uztea eskatzen dugu”

losuk **uneoro bete izan ditu garai hartan Zaintza Epaitegiak ezarritako neurri zorrotzak.** Bestalde, losuk uko egin zion tratamenduari osasun eragozpen handiak sortzen zizkiolako, eta **sendagileek denbora oso mugatua duela esan zioten.**

Berriki, epaitu gabeko auzi bategatik, epaitutako guztiengatik baino neurri gogorragoak jarri dizkiote, zer eta losuren bizitzak oso denbora mugatua duela dakitenean. Epaileak ere horren jakitun dira, baina etxean preso egon behar duela erabaki dute, eta etxe aurrean polizia jarri.

losurekin egiten ari direna ozen salatzen dugu. Bere bizitzaren azken fasea duintasunez igarotzen uztea eskatzen dugu. Aplikatu diezaiotela legea eta utz dezatela libre, eta berarekin batera gaixorik diren preso guztiak. Beraien eskubidea da.

Euskal Herritar guztiak gonbidatu gura ditugu ekainaren 13an gurekin batera losuren egoera eta presoan aurkako mendeku politika salatzera etor daitezen Arrasatera. Gaixorik dauden preso guztiak etxean eta aske egon behar dutela berretsiko dugu. Giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde.

Ekainaren 13an Herriko plazan elkartuko gara, arratsaldeko 19:00etan.

Arrasateko Udaleko Bildu eta Aralar alderdiak.
2014ko ekainaren 10ean, Arrasaten.